

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzua

Hasierako onespena ematea Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren egiturazko xedapen aldaketari, zeinek azpiegitura hidraulikoen eta telekomunikazio azpiegituren kalifikazio xehatuak definituko baitu eta,aldi berean, azpiegitura hidraulikoen sistema orokor bat mugatuko baitu Lasarteko legar-hobien inguruan

Hauxe erabaki zuen udalbatzak 2020ko apirilaren 24an egindako ohiko bilkuran:

1. Hasierako onespena ematea Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren egiturazko xedapen aldaketari, zeinek azpiegitura hidraulikoen eta telekomunikazio azpiegituren kalifikazio xehatuak definituko baitu eta,aldi berean, azpiegitura hidraulikoen sistema orokor bat mugatuko baitu Lasarteko legar-hobien inguruan. Hori guztia udaleko zerbitzu teknikoak 2020ko otsailean egindako proiektuarekin bat.

2. Plangintzarako Aholku Kontseiluari eskatzea plangintzaren aldaketa honi buruzko txostena egin dezan jendaurreko erakustaldiaren barruan.

3. Erabaki honen berri ematea ingurumen arloko organoak alde zuzenetik ingurumen-eraginari buruzko azterlanaren irismenari buruzko kontsulta egin dien erakundeei, 45 egun balioduneko epean beren eskumeneko arloari buruzko txostena eman dezaten Epea igarota erantzunik jaso ez bada, prozedura hau izapidetzen jarraituko da.

4. Aldaketaren dokumentazioa eta horren ingurumen-azterketa estrategikoa jendaurrean jartzea, eta horren berri ematea ALHAOn eta probintzian zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz, edozein erakundek edo interesdunek agiriak aztertu eta 45 egun balioduneko epean egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkezterik izan dezan.

5. Udalerrian eragindako administrazio-batzarrei hasierako onspenaren berri ematea, hogeitau eguneko epean txostena egin dezaten. Epe hori igarotzen delarik erantzunik edo ebazpenik jaso ez bada, jarraitu egingo da tramitazioarekin.

Dosierra Vitoria-Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25—, adierazitako epean.

Nolanahi ere, COVID-19ak eragindako krisi sanitarioa kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak ezartzen duenaren ildotik, dosierra kontsultatu eta alegazioak aurkezteko epea etenda dago, eta, beraz, delako Errege Dekretuaren indarraldia edo haren luzapenena bukatzen denean hasiko da zenbatzen.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko apirilaren 30ean

Alkate lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE